

LANUZTE AKADEMIKOENGATIK

KLASERA EZ JOATEKO

PROTOKOLOA

1.- AURKEZPENA

2.1.- PROZEDURAREN DIAGRAMA

2.2.- PROZEDURA:

- 1.- PROZEDURA HASTEKO ESKAERA**
- 2.- DELEGATUEN BILERA DEITZEA**
- 3.- GELAKO TALDEAREN BILERA**
- 4.- EZ JOATEKO PROPOSAMENAREN EBAZPENA**

3.- ERANSKINAK:

- I.- PROZEDURA HASTEKO ESKAERA**
- II.- DELEGATUEN BILERA-AKTA**
- III.- GELAKO TALDEAREN BOTAZIO-AKTA ETA EBAZPENA**
- IV.- ADINEZ TXIKIAGOAK DIREN IKASLEAK ESKOLARA EZ JOATEKO BAIMENA**



1.- AURKEZPENA

Protokolo berri hau egiteko printzipio eta xede hauetatik abiatu gara:


1- Hausnarketa eta azterketa prozesua sustatzea ikasleen artean.

2- Protokoloaren hezkuntza-izaera. Gure helburua, jokabide bat "ikasteaz" gain, ikasleek pentsatzen, arrazoitzen, kritiko, kontziente, koherente izaten eta beraien buruarekin kontsekuente izaten ikastea da.

3- Parte-hartze kolektiboa. Izaki sozialak gara, gizartean bizi gara, gure erabakiek eta ekintzek eragina dute ingurukoengan eta besteenak ere eragina dute gudan. Solidaritatea, erantzukizun pertsonala eta soziala, konpromisoa edo justizia bezalako balioak sustatu nahi ditugu.

Aplikazio-eremua: Protokolo hau campus bakoitzean egituratzen eta kudeatzen da eta Lanbide Heziketa garaian aplikatuko da (Oinarrizko LH, Erdi Graduko Heziketa-zikloak eta Goi Mailako Heziketa-zikloak), eguneko, arratsaldeko eta gaueko erregimenetan.

2.1.- PROZEDURAREN DIAGRAMA:





2.2.- PROZEDURA:

1.- GUTXIENEZ CAMPUS BATEKO DELEGATUEN %25AK ESKATZEN DIO LH-KO ARDURADUNARI LANBIDE HEZIKETAKO DELEGATUAK BILERA BATERA DEITZEKO PROZEDURA HASTEKO.

(*) Eguneko talde guztien % 25a / arratsaldeko eta gaueko talde guztien % 25a

1.1.- **Eskaera bakarra** aurkeztuko dute delegatu guztiek, talde gisa idatziz. Behar bezala arrazoituta eta beteta (l. Eranskina) gutxienez, geldialdi akademikoa hasiko den ordua baino 3 eskola-egun lehenago (72 ordu).

Eskaera oinarritzen den **deialdia erantsiko** da, bertan gutxienez deitzen duen erakundea, data eta zein esparrutara zuzentzen den zehaztu beharko da. Deialdiaren arrazoi den arazoan ikasleek duten rola zein den eta arazoa konpontzeko nola lagundu dezaketen arrazoituko da.

1.2.-Prozedura hau **ikasle bezala zuzenean deituta dauden** deialdietara eransteko erabiliko da soilik, greben kasuan ezik.

Campuseko LH-ko Arduradunak erabakiko du Delegatuen Bilera deituko duen edo ez aurrean adierazitako baldintzak betetzen dituzten edo ez ikusi ondoren.

1.3.1.- Ez bada egokia: arrazoiak argudiatuko dira.

1.3.2.- **Egokia bada:** Campuseko LH-ko Arduradunak delegatu antolatzaileekin zehaztuko du Delegatuen Bilera ospatzeko eguna eta ordua (gehenez 24 orduko epean, eskaera aurkezten den unetik).

1.3.3.- Campuseko LH-ko Arduradunak bere campuseko LH-ko klaustroari jakinaraziko dio prozedura abiarazi dela.

1.3.4.- Delegatu Antolatzaileak campuseko gainontzeko LH-ko eta dagokien erregimeneko delegatuei jakinaraziko die Bilera zein egunetan, ordutan eta tokitan ospatuko den.

2.- DELEGATUEN BILERA DEITZEA

2.1.- Delegatuen bilera eskola-orduetatik kanpo ospatuko da, ahal izanez gero **eguneko taldeen kasuan 11:00 eta ospatuko da eta arratsaldeko eta gaueko taldeen kasuan 18:15ean**. Delegatuen bilera honetan Campuseko LH-ko Arduraduna edo bera ordezkatzeko duen pertsona egongo dira.

2.2.- Ordeztagarritasuna. Gutxienez egun horretan eta ordu horretan ikastetxean jarduera akademikoa duten taldeen %80a bertaratu beharko dira bilerara.

Talde bakoitza pertsona bakar batek ordezkatzeko du: delegatua edo ordezkariordea (bien absentsia behar bezala justifikatuta egon ezean)

Taldeen ordezkaritza nahikorik ez balego, LH-ko arduradunak bilera nulutzat joko du eta prozedura itxiko da.

Talde bat ez badago delegatuen bileran ordezkatzuta ezingo zaio deialdiari atxiki.



Talderen bateko delegatua ezin bada bilerara joan ordu horretan taldea campus kanpoan ari bada jarduera akademikoren bat egiten, bere taldea deialdiari atxiki ahalko zaio, prozedura zehaztutako epeetan gauzatzen duen bitartean.

2.3.- Delegatu antolatzaileek gainontzeko delegatuei jakinaraziko diete deialdiaren arrazoiak, programatutako jarduerak, eskolara ez joateko proposamena (partziala edo osoa), beraiek ere, gelako-kideei behar bezala informatzeko eta ikasgelan eztabaida kontzientea egin ahal izateko.

2.4.- Eskolara **ez joatearen iraupena** (totala edo partziala) delegatuek zehaztu beharko dute. Deialdian aldaketak egin ahal izango dira, baina ezingo da inolaz ere deialdian proposatzen den iraupena gainditu. Ez joatearen iraupena bileran erabakiko dute bertaratutakoek, botazio baten bidez. Ez joate horren iraupena berdina izan beharko da campus berdineko talde guztientzat.

2.5.- Delegatu antolatzaileek bileran hartutako erabakien **akta** idatziko dute (**II. Eranskina**).

Gainera, Campuseko LH-ko Arduradunak (edo hura ordezkatzeko duen pertsonak) LH-ko Irakasleen Klaustroari jakinaraziko dio Bileraren emaitza.

2.6.- Ondoren **bilera ospatu ondorengo lehenengo eskola-orduan** delegatuak edo talde bakoitzaren ordezkariak **ikasgelan emango du proposamenaren berri**. Une horretan, taldeko ikasleek deialdiaren arrazioen eta jardunaldi horretarako aurreikusitako jardueren ikuspegi informatua jaso beharko dute, geldialdi akademikoa deitzearen arrazioen gaineko azterketa eta analisia behar bezala burutu ahal izateko. **Ordu horretan taldearekin eskola duen irakaslea, zein eztabaidan egon beharko den**, taldeko ikasle guztiek proposamena baloratzeko giroa sortzeaz arduratu beharko da, nahi duenak bere iritzia eman ahal izateko banako zein taldeko hausnarketa prozesua sustatzeko geldialdi akademikoa inguruan egun berdinean ikasleek egin beharko duten botazioari begira.

3.- GELAKO TALDEAREN BILERA

3.1.- Talde bakoitzaren botazioa **geldialdi akademikoa deitzen den egun berdineko eskolako lehen orduan egin beharko da**. Ezingo da beste une baten egin.

3.2.- Botazioak sekretuak izango dira.

3.3.- **Botazioaren emaitza**: Emaitza osoa lortzeko kontuan hartuko da:

- Talde bakoitzean, gelako zerrenda ofiziala hartuko da erreferentzia gisa, LP eta/edo proiektua besterik ez duten ikasleak ezik, eta ikastetxera ordu horretan joan beharrik ez duten prestakuntza dualeko programetako ikasleak. Beste salbuespen batzuk ere kontutan hartu ahal izango dira Campuseko LH-ko Arduradunak horrela erabakitzen badu.
- Geldialdi akademikoa talde jakin batean onartu dela ulertuko da, **bozka guztiak zenbatuta (aurrean aipatutako erreferentzia-zenbakia kontuan hartuta) baiezko botoen erdia gehi 1 lortzen bada**.
- Eskolako lehen ordu horretan bozkatzera joaten ez diren ikasleenez duten ikasleen kasuan, ez joate horiek bizikidetzaren kontrako falta gisa hartuko dira, ez joate hori behar bezala justifikatuta ez badago.



Botazio hauen emaitza **irakasleak eta delegatuak sinatutako akta batean jasoko dira (III. Eranskina)** Campuseko LH-ko Arduradunak (edo hura ordezkatu duen pertsonak) LH-ko Irakasleen Klaustroari jakinaraziko dio Bileraren emaitza.

4.- ESKOLARA EZ JOATEKO PROPOSAMENAREN EBAZPENEA

4.1.- Delegatuak **Campuseko LH-ko Arduradunari** entregatuko dio akta hau, zeinek, botazioaren emaitza eta garatutako prozedura baloratu ondoren, talde horretarako **geldialdi akademikoa dela eta "eskolara ez joatea" onartuko du** edo ez du onartuko. Talde bakoitzeko delegatuari eta dagokion campuseko hezitzaile klaustroari **jakinaraziko dio** ebazpena.

4.2.- Prozedura talde jakin batentzat onartu bada, aurreikusitako **azterketak** edo bestelako ebaluazio-froga edo lanak entregatzea, azterketa edo ebaluazio froga egiteko beharrezko baldintzak betetzen diren moduluko hurrengo eskola-ordura pasatuko dira (informatika-gela edo beharrezko tailerra, azterketaren iraupena, eta abar.).

4.3.- LH-ko Arduradunak irakasleei jakinarazten dienean prozeduraren hasiera, ez da azterketarik programatuko deialdiaren egunean.

4.4.- Ez joatearen balorazioa: Prozedura hau betetzetik ondorioztatutako eskolara ez joateak, justifikatutako ez joatetzat hartuko dira.

4.5.- Edozein kasutan, jardunaldi horretarako aurreikusitako jarduera akademikoa normaltasunez jarraituko dute eskolara joaten diren ikasleek.

4.6.- Beti bermatuko da geldialdi akademikoaren deialdiarekin bat egitea nahi ez duten ikasleek eskolara joateko duten eskubidea.

4.7.- Eskolara joatea erabakitzen duten pertsonak, eskola-ordu batera ez badira agertzen, ezingo dira hurrengo orduetara joan.

ADINGABEAK

Ikasle adingabeak, aurretik ikastetxe-irteeran, tutoreari entregatu beharko dio eskolara ez joateko baimena, aitak/amak edo ordezkari legalak sinatua.



PERMISO OTORGADO POR RESPONSABLE FP PARA LA CONVOCATORIA DE ASAMBLEA DE DELEGADOS/AS LH-KO ARDURADUNAK DELEGATUEN BILERA DEITZEKO EMANDAKO BAIMENA:

BAI

NO

EZ

DELEGATUEN BILERA OSPATUKO DEN EGUNA, ORDUA ETA TOKIA:

EN CASO NEGATIVO, MOTIVO: EZEZKOA BADA, ARRAZOIA:

RESPONSABLE DE FP/LH-KO ARDURADUNA :

Vitoria-Gasteiz-en 20...-(e)ko-ren.....-(e)an

Oharra: derrigorrezkoa da prozedura hau hasteko eskaera oinarritzen den deialdia eranstea bertan gutxienez deitzen duen erakundea, data eta zein esparrutara zuzentzen den zehaztu beharko da.



III. ERANSKINA GELAKO TALDEAREN BOTAZIO-AKTA

DATA:	BILERAREN TOKIA
TALDEA:	
HASIERA ORDUA:	AMAIERA ORDUA:
IRAKASLEA:	
MATRIKULATUTAKO IKASLEAK (*gelako zerrenda ofizialean) <small>*LP eta/edo proiektua besterik ez duten ikasleak ezik</small>	
BILERARA BERTARATUTAKOAK:	
BAIEZKO BOTOAK:	
EZEZKO BOTOAK:	
BOTO ZURIAK:	
BOTO NULUAK:	
ABSTENTZIOAK:	
BOTAZIOAREN EMAITZA:	

IRAKASLEA

DELEGATUA

ORDEZKARIORDEA

ESKOLARA EZ JOATEKO PROPOSAMENAREN EBAZPENA

ONARTU DA ESKOLARA EZ JOATEA

EZ DA ONARTU ESKOLARA EZ JOATEA

LH-KO ARDURADUNAREN sinadura

Vitoria-Gasteiz-en 20...-(e)ko-ren.....-(e)an



IV. ERANSKINA GELDIALDI AKADEMIKOA DELA ETA ESKOLARA EZ JOATEKO BAIMENA

Aitaren/amaren/tutore- legalaren Izen-abizenak	
Ikasle adingabearen Izen-abizenak	
Taldea	

EGIBIDE IKASTETXEARI HONAKOA JAKINARAZTEN DIO:

Geldialdi Akademikorako deialdia ezagututa, _____egunerako _____ -
_____ orduen bitartean, eta seme/alaba dagoen gelako-taldean botazioa baiezkoa balitz,
zein deialdiaren egun berean ospatuko den goizeko lehenengo orduan, **BAIMENA EMATEN DIO**
seme/alabak deialdiarekin bat egiteko. Denbora horretan zehar ikaslea ezingo da EGIBIDE barruan
egon eta Ikastetxeak ez du inolako erantzukizunik izango eskolara ez joate horretatik
ondorioztatutako edozein ekintzaren edo egoeraren aurrean.

Sinadura:

Sinadura Aita, ama edo tutore legala:
Ikaslea:

_____(e)n, _____(e)ko _____-ren
_____(e)an